

BIDANKOZARTE

Lege gordailu: NA 2365-2015

Bidankoze hiriko aldizkari historiko-kulturala

Edukiak

- Jarduera bizia..... 1
- Ezpelezko goilara bat..... 1
- Dragoiak Erronkaribarren..... 2
- Umorea agiri historikoetan..... 2
- Hildako bat izan zuen almadia istripua 3
- Bidankozeko etxe almadiazainak. 3
- Kaskezur bat *Irasokoatean*..... 4

Kontaktua:

Gotzon Pérez Artutx
bidankozarte@yahoo.es

Eduki gehiago:

www.vidangoz.com/bidankozarte/
Facebook
twitter.com/bidankozarte



1924. urtean Damaso Pérez Arriolarentzat Justino Navarro Aizagarrek egindako ezpelezko goilara.

Ezpelezko goilara bat

Zenbaki hau erlikia txiki batekin hasiko dugu, horrela esan ahal bada, herri-artearen erakusgaia. Artzain batek (garai hartan) beste artzain batentzat egindako ezpelezko goilara batez ari gara. Egilea, goilara grabatu zuena, Justino Navarro Aizagar (*Matias* etxekoa, egungo *Remendia* etxea) gaztea zen, eta horren erakusle dira J N bere inzialak piezaren aurrealdean. Orduan artzain zebilen, baina aurrerago arterako zuen trebetasuna baliatuko zuen eta Madrilen eskulturaren eta irakaskuntzan izango zuen bizimodu, azken gerra zibilaren ondorioz hainbat gorabehera izanik.

Santa Barbara egunaren aitzakiarekin Facebooken erakutsi nuen Justino Navarrok egindako tailua txiki bat, gerorako Bidankozera egindako bisitaren batean beste figuraren bat ere eginez.

Goilararen historia 1924ko suaren inguruko gau batean irudika dezakegu, Bidankozeko hainbat artzain afaldu, hitz egin eta kartetan aritzeko bilduta. Labanarekin Justinok zuen trebezia ikusita, Damaso Pérez Arriola (*Diego* etxean jaioa eta *Santxena* etxera ezkondua) ezpelezko goilara baten enkargu egingo zion (gogoan izan behar dugu garai hartan tresna hau eta labana izango zirela jateko erabiltzen ziren mahai-tresna bakarrak), bere

gustuko diseinuarekin, kasu honetan garaiko karta-sorta baten zaldiko urrea, goilaran zaldun mongol baten itxurako izanda (aurkitu dudun antzeko karta bat www.vidangoz.com/bidankozarte web-orrian ikus dezakezue).

Agerian dagoenez, atzetik istorio bitxia duen goilara bat da.

Jarduera bizia

Aurreko zenbakian esaten nuen moduan, azarotik *Bidankozarte* sare sozialetan dabil.

Toki horietan egoteak *Bidankozarte* aldizkariaren hiru hilabeteko maiztasuna baino askoz txikiago eskatzen du edukien ekarpenari dagokionez. Egia da sarrerek edo post-ek ez dute zertan izan behar hemen aurkeztutakoak bezain luze edo landuak, baina buruari askoz buelta gehiago eman behar zaizkio zer argitaratu jakiteko.

Horrela, Facebooken zein Twitterren *Bidankozarte*ko jarraitzaile izatera gonbidatzen zaituztet (dagoeneko 159 eta 66 jarraitzaile baditugu), medio horietan aldizkarian aurkeztu diren artikuluek gain, Bidankozeko hainbat bitxikeri, aipu eta irudi aurki ditzakezue.

Zerren zain zabilta? Jarraitu *Bidankozarte*!!



Goilararen atzeko aldeko irudia



Dragoiak Erronkaribarren

Gure bailara ez da *Game of thrones*-en agertoki (horretarako paisaia falta ez izan arren), baina, zer pentsatuko zenukete duela ia lau mende gure bailaran dragoi batzuk izan zutelako estatu?

Ba ez, ez dut burua galdu, ezta gezurretan ari ere, baina honek ez du izaki mitologikoekiko zerrikusirik.

Izan ere, eta *Erronkariko Batzorde Nagusiko Artxiboan* (005. Kutxa, 3. Dok.) gordetzen den agiri batek diotenez, 1640an gure bailaran *Dragoiek* ostatu hartu zuten sei hilabetez.

Dragoiek Espainiako armadako atal bat osatzen zuten, eta zaldiz eta arkabuzez ekipatutako gerlariak ziren, batzuetan eta baldintzen arabera, zaldiz zein oinez borrokatu ahal zutenak.

Baina, zergatik egon ziren *Dragoi* horiek gure bailaran sei hilabetez? Bada, ziur aski, urte haietan zegoen Espainia eta Franzieren arteko gatazkarengatik (*Gerra franko-espainiarra*, 1635-1659), baina kontuan hartu behar da 1640an beste hainbat fronte zituela zabalik, Portugalen sezesioa edota Katalunyan *Segalarien Gerrari* (1640-1652) hasiera emango zion matxinada. Zein garai konbultso izan zen irudikatzeo, historiografiak 1640ko krisia deitzen diola aipatu behar da, Espainiari pilatu zitzaizkion arazoaren kopuru handiari men eginez.

Dragoiak bai, azken finean, baina ez mitologiakoak bezain erakargarri...

Umorea agiri historikoetan

Gure herrien historia ikertzen dugunon inguruan jendeak pentsatzen duenean, nire ustez lan aspergarri eta monotono egiten dugula irudikatzen dute, baina horrela ez izateaz gain, askotan, interes handiago edo txikiagoko aurkikuntzak topatzeaz gain, batek kontu bitxiak ere aurkitzen ditu, batzuetan komikoak eta guzti.

Gaur horietako bat dakart. 1863an amaitzen den Bidankozeko Udalaren kontu liburuaren azken orrian norbaitek artikulu honen azpian agertzen den irudian erakusten dena marraztu eta idatzi zuen: bi antena edo (egietan bi bolatxo edo borla baitira) dituen kapela bat daraman txingote baten marrazkia. Idatzitakoa ere ez da ekarpen handia, baina beharbada zerbait lor dezakegu haietatik.

Alde batetik, '*Libro de Buru-Macur*' dio, garai hartan ohikoa zen euskararen erabileraren erakusle (*Buru-Makur* kasu honetan hitzez-hitz itzuli beharko genukeela dirudi eta ez burumakur hitzaren esanahiarekin). *Buru-Makur*, beraz, norbaiten ezizena izango zen, buru makurrarekin zebilena, ziur aski idazkaria edo diruzaina.

Bestalde, '*sombrero calañes*' dio, txingotearen buru gainean puztua agertzen den kapelari erreparatuz. Hau xehetasun bitxia, gure arbasoek sekula ez zuten burutik kentzen kapela erronkariarra pentsatzen ohi baitugu... edo agian *Burumakur* deitutako hori ez zen jatorrizko erronkariarra... Kapela kalañesa jatorri andaluziarra du, eta ohiko ikonografian bidelapurrek



Curro Jiménez bidelapurra, bere kapela kalañesa soinean

erabiltzen dutena da (adibidez, Curro Jiménez, hitz hauen ondoko irudian).

Beno, kontua da hau guztia anekdota hutsa izan ahal zela (edo agian hori besterik ez da), xehetasun txiki batengatik ez bazen: kontu liburu horren azkenurreko diruzaina, Pedro Clemente, betiko bidankoztarra, gaur egun *Makurra* deitzen dugun etxearen jabea eta familia-burua zen, eta baliteke etxearen izenaren jatorria *Buru-Makur* ezizena hori izatea...

Batek daki! Nola edo hala, argi geratzen da gure arbasoek ere umorea zutela.

1863an amaitzen duen Bidankozeko Udalaren kontu liburuaren agertzen den marrazkia




Burgiko *La Kukula* elkarte lagunak Arbaiungo arroilan duela 75 urte gertatutako almadia istripu baten berri ematen zuen joan den neguan. Donato Mendive almadiazain burgiarra hil zen ezbeharra hartan.

Bada, bizitzaren kasualitateak, antzeko datetan baina duela mende bat (1917/03/17) almadiek hildako baten emaitza izan zuen beste lan-istripu bat utzi ziguten, bidankozarren bat tartean egonda.

Gertaera *Belagua* ibaian gertatu zen, Izabako errotaren presan (Izabak izan dituen errotetako bat; presa dagoeneko ez dago, baina Izabatik Belaguarako norantzan kilometro erdira omen zegoen), hor Miguel Pérez Novallas (edo Navallas, begiratzen dugun agiriaren arabera) Ezkako Salbatierrako almadiazain-peoi (langile kontratatua) uretara erori eta itota hil zen. Bere gorpua ur-lasterrak eraman eta *Belagua* eta *Uztarroze* ibaiak Ezka ibaia sortzeko elkartzen diren puntuan atera ahal izan zuten uretatik. Garaiko prentsak zioenez, aurreko egunetan euri ugari ari zuen eta ibaia goratua zebilen. Beraz, presa gainditzea bezalako maniobrak ohi baino arriskutsuago zirela baldintza hauetan pentsa dezakegu.

Almadiazain hau Jose Urzainki Jimeno [*Hualderna*] bidankoztarrarentzat ari zen lan egiten, *Bidankozeko Almadiazainen Elkarte*ko kidea zena (elkarte honen inguruan beste batean arituko naiz, oroitzapen gutxi baitago horren inguruan eta kooperatiba honen ibilera garrantzitsua izan zen gure herrirako), eta elkartearen istripuak egotean kalte-ordainketak ordaintzen zituen (zuzenean kaltetuei edo, kasu honetan bezala, bere senidei).

Istripu honi buruz *Diario de Navarraren* artikulua zioenez, almadia berean Ezkako Salbatierrako beste bi almadiazain zihozten, haietako bat hildakoaren anaia, bereziki pairatuko zuela gertaera latz honekin gure ustez.



Hildako bat izan zuen almadia istripua

Suposatu dezakegunez, oraingo honetan, istripuan hildako bat egonda (duela mende bat dagoeneko bazuten Lan-Istripuen Lege bat), alargunari ordaindu beharreko kalte-ordaina ez zen txikia izango eta Elkarteak ordaina atzeratzen eta behar baino gutxiago ordaintzen saiatu zen. Aipatu behar da horrelako kasuetan kalte-ordainaren zenbatekoa *Bidankozeko Almadiazainen Elkarte*ko garai hartan zituen 30 kideen artean (Bidankozeko ia etxeen erdiak) banatu behar zela, gastua bakoitzak zuen almadia kopuruaren arabera banatuz.

Azkenean, eta alargunaren abokatuak presio pixka bat egin ondoren, bi aldeek akordio egin zuten eta hildako Miguel Pérezen alargunak 2900 pezetetako kalte-ordaina jaso zuen, baina, nahiz eta 1917an dirutza izan, honek ez zuen inola beteko bere senarraren falta.

Almadiazainarena oso ogibide arriskutsua zen eta, aldian-aldian, ibaiak nabigatzaile ausartei kobratzen zien zerga. Ogibidea desagertu zen, baina gure historiako hainbat pasarte bitxiak utzi digu.

Pixkanaka pixkanaka, hau bezalako beste istorio batzuk aurkeztuko ditut.

Bidankozeko etxe almadiazainak

Istoria hau ikertzean dokumentu bitxi batzuk aurkitu nituen, zeren, kontatutako almadia istripuaren konturako garrantzi berezirik ez izan arren, interes handiko diren datuak ematen dizkigu, besteak beste, 1917an *Bidankozeko Almadiazainen Elkarte*an zenbat kide eta zeintzuk ziren esaten baitigu, baita bakoitzak zenbat almadia atera zituen urte hartan.

Guztira, Bidankozeko kideak 191 almadia jaitsi zituzten urte hartan (eta denak ez ziren jaitsi *Bintze* ugaltzatik, argi dago), eta etxez-etxe nola zeuden banatuta jarraian erakusten da: *Gaiarre* 6, *Diego* 3, *Montxonena* 4, *Danielna* 5, *Lengorna* 2, *Arguedas* 12, *Paskel* 6, *Artutx* 5, *Juanko* 7, *Lixalte* 8, *Aristu zaharra* 7 (Doroteo Jimeno da, *Llabari*

etxekoa, baina hemen aipatzen zaio etxe honetan alokatuta biziko zelako edo ez dakigun beste motiburen batengatik), *Antxon* 4, *Jimeno* 8, *Makurra* 5, *Xereno* 7, *Algarrá* 2, *Hualderna* 10, *Txantxolit* 11, *Pantxo* 12, *Ornat* 6, *Arotx* 4, *Santxena* 3, *Larranbe* 4, *Paxapan* 5, *Mendigatxa* 7, *Matías* 5, *Zinpintarna* 6, *Txestas* 6, *Garro* 14 eta *Llabari* 7.

Bidankozeko hogeita hamar etxek, neurri handi edo txikiago batean, bazuten jarduera almadiazaina. Harritu ahal gaitu ere zerrenda honetan abeltzain hutsatzat izango genituzke etxe batzuk agertzeak, baina kontuan izan behar dugu lehen, orain bezala, negozioak dibertsifikatzea ez zela ideia txarrik...



Burezur bat agertu zen Irasokoatean

Kaskezur bat Irasokoatean

Akta Manuel Nicolao [Anxelarna] eskribauak idatzi zuen.

Aurkikuntzaren tokian, arropako zati pila eta abarrez gain, gerora gorpuren identifikatzeko funtsezkoa izango zen elementu bat agertu zen: *'erabilitako latorrizko kutxa bat, herdoildu samarra, barruan sudurrerako hauts pixka bat duena, estalkian 'Carrascón' labanaz idatzita duena, eta horren azpian, tintaz, 'Nire jabea' dio, eta albo batean 'Dn M' eta ezabatu diren gainerako hizkiak tintaz idatzita ditu'. Gainera, ezohikoak ziren bestelako janzkerak agertu ziren: 'xistera leuna eta oso erabilia, zetazko zinta batek inguratuta; oihal oneko kapa bat, lepo altukoa eta botila-koloreko panazko bueltak; lizarrezko bastoi txuri bat'.*

Hezurak agertu ziren tokia ikusita, hildakoa toki horretan ekaitzaz babesten saiatu zen eta bertan, jatekorik gabe eta galduta, hil zela ondorioztatu zuten, ziur aski Erronkari eta Zaraitzu lotzen duen mendietan zehar doan bidezidorretik irtetean galduta. Haien ustez, denbora pixka bat egon omen zen tokian, belarraren zati bat zapalduago zegoelako, eta eserita zegoen haitzean agertutako ile batzuei esker buruzuri zela jakin zuten. Kaskezurra gorputzetik *'basa piztiak banatuko zuten, badirudi haitetako asko ibili dira eta. Gainerako hezurak, ustez, piztiak janak izan dira, edo Azaltegiako ugaltxaren ur-goraldiren batek erraz eramanda'.*

Ramon Ainesa errotariak zirujau zen (gaur egun praktikante edo erizain deituko genuena) adinduko Carrascón bat ezagutu zuela adierazi zuen, Jaurrietan errotari ibili zenean, eta gainera, horren seme bat azaroan ea norbait bere aita ikusia zuen galdezka pasatu zela, etxetik atera baitzen (Itzaltzutik Urzainkirantz lan bila, bere herrian lanetik kaleratu ondoren, eta euri eta elur ekaitz batek harrapatu omen zion eta ez zen etxera itzuli.

Aurkikuntzaren tokitik gertu ondasunak zituztenak ere egin zuten aitortu (José Anaut [Inigizena] eta Pedro Miguel Fuertes [Fuertes / Lixalte]), irailetik kaskezurra aurkitu baino aste bat lehenagora arte inguruan ibiliak ez zirela esan zuten, baita *'ez dakite hain aparteko toki batean inork ibilia denik'.*

Galdeketak amaitzeko, Irasokoateatik gertu zebiltzan unaien (emakumeak zirenak) txanda izan zen: Ignazia Monzon [Txestas / Arguedas], Martxo hilabete osoan zehar bere behiak zaintzen egona zena Irasokoatean duten bordan, Manuela Sanz [Bernabé] eta Sebastiana Navarro [Danielna], Martxo osoan zehar Irasokoatean bere nagusiak duen borda egona zena eta egunak bere behiak zein bere nagusiarenak bazkatzen ematen zituena. Hauetako inork ere ez zuen gainerako beste inor ikusi egun horietan.

Burezurra behin-behinean Bidankozeko elizaurian (hilerrian) lurperatu zuten marka bat jarriz norbait erreklamatu zuelako esperoan.

Azkenik, Itzaltzuko lekuko batzuk desagertutakoak Irasokoatean aurkitutako arropak erabili ohi zituela eta bere elikatze-egoera txarra zela pobrepobrea zelako adierazi zuten. Horrela, bada, eta nahiz eta alargunak bere senarrak ez zuela arropa hori erabiltzen esan, saihestezina zena onartzeari uko eginez, badirudi kontu hau argitu egin zela: Manuel Carrascón zirujau zaharra Itzaltzutik Urzainkirantz abiatu zen mendizerratik doan bidetik, bidean ekaitza harrapatu, aterpea bilatzen saiatu, galdu eta hotzez eta gosez hil zen bertan, eta gerora basapiztiak bere gorputza jan zuten.

Orbaizetan agertutako kaskezurra, dirudienez, mendi horietan bizitzera etorritako alemaniar batenak direla dirudi, baina hasiera batean burezuraren jatorriaren inguruan mota guztietako usteak egon ziren. Azkenean, beraz, agerpenak ez du zerikusi handirik izan duela mende eta Erdiko Bidankozen gertatutakoarekin.

Duela aste batzuk bertoko egunkariak *'Orbaizetako udalerrian Irati ibaian agertutako kaskezur baten aurkikuntza ikertzen ari dira'* izenburuko albiste bat zekarten.

Ba, denboraren distantzia tarteko, Bidankozen antzeko gertaera bat egon zen, 2014an eman nuen Bidankoze beltza: *heriotza eta delinkuentzia gure karraketan* izenburuko hitzaldi-ibilalditxoan aztertu nuena, eta esandako albistearen harira, oraingo honetan berreskuratuko dudana.

Udaberria estreinatzen ari zen 1850. urteraino egin behar dugu atzera, eta aurkikuntza makabro batek herria bere neguko lozorrotik atera zuen bat-batean: burezur bat eta arropa batzuk Irasokoatea inguruan [Olaberriatik ipar-ekialdera; toki malkartsu batez aritzen dela kontuan hartuta, beharbada hildakoak Azaltegiako bidea hartu eta Lexankoetatik (Amuluxanko toponimia ofizialean) nonbait galduko zen]. Kaskezurra aurkitu zuenak apezka abisatu zuen, Don Angel Urzainki [Fernando], eta honek Tomas Hualde [Pelai] alkateari. Hau izan zen gorpuzkiak identifikatzeko diligentziak egiteaz arduratu zena.

Aurkikuntzaren tokira miaketa egitera hurrengo hauek joan ziren: alkatea, Don Manuel Lareki [Burgi / Elizalde] zirujaua eta lau lekuko (Tomas Iriarte [Gorza / Iriarte], Pedro Miguel Fuertes [Lixalte], Vicente Zazu [Galoze / Pexenena] eta Mariano Landa [Landa]).